# Xedapen Orokorrak

**INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA**

**1523**

AGINDUA, 2009ko otsailaren 23koa, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuarena, turismoa garatzeko interes estrategiko berezia duten enpresak sortzen eta bertan inbertitzen laguntzeko Gauzatu-Turismo programa garatu zuen agindua bigarrenez aldatzen duena.

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2000ko abenduaren 27ko Aginduz, turismoa garatzeko interes estrategiko berezia duten enpresak sortzen eta bertan inbertitzen laguntzeko Gauzatu-Turismo programa arautu zen.

Gero, aipatutako agindu hori indargabetu egin zen, eta Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuak 2003ko ekainaren 11n emandako aginduaren bidez ordezkatu zen (2003ko uztailaren 1eko EHAA, 128. zenbakia). Agindu horrek Gauzatu-Turismo programa arautu zuen, turismoa garatzeko interes estrategiko berezia duten enpresak sortzen eta bertan inbertitzen laguntzeko programa, hain zuzen ere.

Agindu hori Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2005eko maiatzaren 3ko Aginduaren bidez aldatu zen (2005eko maiatzaren 24ko EHAA, 96. zenbakia).

Egun, agindu horren babesean hainbat deialdi argitaratu ostean, agindu horretako hainbat artikulu aldatu beharra dagoela ikusi da.

Hori dela eta, honakoa

XEDATU DUT:

***Lehenengo artikulua***.– Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2003ko ekainaren 11ko Aginduaren 5. artikuluaren 1. puntuaren b), d) eta e) idatz-zatiak aldatzen dira. Agindu horren bidez, Gauzatu-Turismo programa arautu zen, turismoa garatzeko interes estrategiko berezia duten enpresak sortzen eta bertan inbertitzen laguntzeko programa, hain zuzen ere. Honela geratuko dira idatz-zati horiek:

«b) Landetxeak: eraikin bat egitea edo birgaitzea, landetxe moduan erabiltzeko. Proiektuak onargarriak izateko, ondorengo baldintzak bete beharko dituzte: batetik, Espainiako Turismo Kalitaterako Institutuaren «Landetxeetarako Kalitate Sistemaren» arabera, Azpiegitura eta Ekipamenduen Arauan higiene-zerbitzuen, guztientzako zerbitzuen eta gela-banaketaren inguruan jasotzen diren gutxieneko estandarrak

# Disposiciones Generales

**DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO**

**1523**

ORDEN de 23 de febrero de 2009, de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo, de segunda modificación de la Orden por la que se desarrolla el programa Gauzatu-Turismo, de ayudas a la inversión y a la creación de empresas de especial interés estratégico para el desarrollo turístico.

Mediante Orden de 27 de diciembre de 2000, del Consejero de Industria, Comercio y Turismo, se reguló el programa Gauzatu- Turismo, de ayudas a la inversión y a la creación de empresas de especial interés estratégico para el desarrollo turístico.

Posteriormente, la citada Orden fue derogada y sustituida por la Orden de 11 de junio de 2003 (BOPV n.º 128 de 1 de julio de 2003), del Consejero de Industria, Comercio y Turismo, por la que se regula el programa Gauzatu-Turismo, de ayudas a la inversión y a la creación de empresas de especial interés estratégico para el desarrollo turístico.

Por Orden de 3 de mayo de 2005 (BOPV n.º 96 de 24 de mayo de 2005), de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo se modificó la Orden de 11 de junio de 2003.

Actualmente, y tras la publicación de sucesivas convocatorias de ayudas al amparo de la citada Orden, se ha visto la necesidad de llevar a cabo nuevas modificaciones en su articulado.

En su virtud,

DISPONGO:

***Artículo primero.***– Se modifican los apartados b), d) y e) del punto 1 del artículo 5 de la Orden de 11 de junio de 2003, del Consejero de Industria, Comercio y Turismo, por la que se regula el programa Gauzatu-Turismo de ayudas a la inversión y a la creación de empresas de especial interés estratégico para el desarrollo turístico, quedando redactado en los siguientes términos:

«b) Casas Rurales: construcción de un edificio o rehabilitación de uno ya existente para su uso como casa rural. Sólo serán admisibles aquellos proyectos que cumplan los estándares mínimos recogidos en la Norma de Infraestructuras y Equipamientos del Instituto para la Calidad Turística Española, «Sistema de Calidad para Casas Rurales» relativos a servicios higiénicos, servicios comunes y distribución de las

eta, bestetik, abenduaren 23ko 16/2008 Legeak aldatutako Turismo antolatzeko martxoaren 16ko 6/1994 Legearen 27. artikulua garatzeko araudian jasoko diren baldintzak.

d) Kanpinak: instalatzeko baimen turistikoa duten kanpinak eraikitzea.

e) Lehendik eginda dauden hoteletako, landetxeetako, turismoko apartamentuetako eta kanpinetako egiturak edo ekipamenduak modernizatzea.

Landetxeen kasuan, Espainiako Turismo Kalitaterako Institutuaren «Landetxeetarako Kalitate Sistemaren» arabera, Azpiegitura eta Ekipamenduen Arauan higiene-zerbitzuen, guztientzako zerbitzuen eta gela-banaketaren inguruan jasotzen diren gutxieneko estandarrak betetzen dituzten proiektuak baino ez dira onartuko.»

***Bigarren artikulua.***– Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2003ko ekainaren 11ko Aginduaren 5. artikuluaren 4. puntua aldatzen da. Agindu horren bidez, Gauzatu-Turismo programa arautu zen, turismoa garatzeko interes estrategiko berezia duten enpresak sortzen eta bertan inbertitzen laguntzeko programa, hain zuzen ere. Honela geratuko da artikulu hori:

«4.– Aurkeztu diren proiektuak egokiak diren ala ez aztertzeko, batzorde bat sortuko da, honako kide hauek izango dituena: Turismo Administrazioko eta Lehiakortasuneko zuzendaria, edo hark izendatutako pertsona (batzordeburua izango da eta, berdinketa geratuz gero, berak erabakiko du auzia); Turismo Sailburuordetzako arduradun tekniko bat; lurralde historiko bakoitzeko turismo-koordinatzaileak; Enpresa Sustatzeko zuzendariordea; Industriaren Sustapen eta Birmoldaketarako Sozietateko (SPRI, S.A.) Enpresa Garapeneko zuzendaria; eta Basquetour, Turismoko Euskal Agentziako zuzendaria, edo hark izendatzen duen pertsona.

Batzorde honen bilkurak baliotasunez eratzeko nahikoa izango da bertan batzordeburua eta idazkaria eta gutxienez beste kideetako bat izatea. Batzordearen funtzionamenduari buruz puntu honetan aurreikusi ez den guztian Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean xedatutakoa aplikatuko da.»

***Hirugarren artikulua.***– Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2003ko ekainaren 11ko Aginduaren 6. artikuluaren 2. puntua aldatzen da. Agindu horren bidez, Gauzatu-Turismo programa arautu zen, turismoa garatzeko interes estrategiko berezia duten en-

estancias, así como los requisitos que se prevean en la normativa que desarrolle reglamentariamente el artículo 27 de la Ley 6/1994, de 16 de marzo, de ordenación del turismo, modificada por la Ley 16/2008, de 23 de diciembre.

d) Campings: construcción de campings que dispongan de autorización turística de instalación.

e) Modernización de las estructuras o equipamientos de hoteles, casas rurales, apartamentos turísticos y campings ya existentes.

Para el caso de las casas rurales solo serán admisibles los proyectos presentados que cumplan los estándares mínimos recogidos en la Norma de Infraestructuras y Equipamientos del Instituto para la para la Calidad Turística Española, «Sistema de Calidad para Casas Rurales» relativos a servicios higiénicos, servicios comunes y distribución de las estancias.»

***Artículo segundo.***– Se modifica el punto 4 del artículo 5 de la Orden de 11 de junio de 2003, del Consejero de Industria, Comercio y Turismo, por la que se regula el programa Gauzatu-Turismo de ayudas a la inversión y a la creación de empresas de especial interés estratégico para el desarrollo turístico, quedando redactado en los siguientes términos:

«4.– Para la consideración de la adecuación de los proyectos presentados se crea una Comisión compuesta por la Directora de Administración Turística y Competitividad, o persona en quien delegue, que ostentará la Presidencia del Comité y dirimirá con su voto los empates, un/a responsable técnico de la Viceconsejería de Turismo, los/as coordinadores/as de turismo de cada Territorio Histórico, el Subdirector de Promoción Empresarial y el Director de Desarrollo Empresarial en la Sociedad para la Promoción y Reconversión Industrial, S.A. (SPRI), y la Directora de la Agencia Vasca de Turismo, Basquetour, o persona en quien delegue.

La constitución de esta Comisión será válida a los efectos de celebración de sesiones con la presencia de la presidenta, secretario y uno o más de los restantes vocales. En todo lo relativo al funcionamiento de la Comisión, no previsto en este apartado, se aplicará supletoriamente lo dispuesto en la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común».

***Artículo tercero.***– Se modifica el punto 2 del artículo 6 de la Orden de 11 de junio de 2003, del Consejero de Industria, Comercio y Turismo, por la que se regula el programa Gauzatu-Turismo de ayudas a la inversión y a la creación de empresas de especial interés estratégi-

presak sortzen eta bertan inbertitzen laguntzeko programa, hain zuzen ere. Honela geratuko da puntu hori:

«2.– Halaber, hiru hiriburuetako edozeinetan dauden hoteletan eta turismoko apartamenduetan inbertitzeko proiektuak baztertu egiten dira, 5.1.f) atalean jasotako inbertsio-proiektuak izan ezik.»

***Laugarren artikulua.***– Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2003ko ekainaren 11ko Aginduaren 7. artikuluaren 1. eta 1.a) puntuak aldatzen dira. Agindu horren bidez, Gauzatu-Turismo programa arautu zen, turismoa garatzeko interes estrategiko berezia duten enpresak sortzen eta bertan inbertitzen laguntzeko programa, hain zuzen ere. Honela geratuko dira aldatutako puntuak:

«1.– Laguntzen zenbatekoa kalkulatzeko, laguntza jaso dezakeen inbertsiotzat joko da enpresaren aktiboari gehituko zaizkion aktibo finkoak eskuratzeko inbertsioa, gutxienez 50.000 eurokoa, baldin eta gehienez 24 hilabeteko epean gauzatzen bada eta, agindu honetan eta berau garatzeko xedapenetan ezarritakoez gainera, baldintza hauek betetzen baditu:

a) Azaroaren 16ko 1514/2007 Errege Dekretuan bildutako Kontabilitate Plan Orokorrak ezarritako definizioaren arabera, kategoria edo epigrafe hauetakoren batean dauden aktiboak izatea:

– 206 Informatika-aplikazioak.

– 211 Eraikuntza-lanak (urbanizatzeko lanak eta lurrak higitzekoak ere barnean direla).

– 212 Instalazio teknikoak.

– 213 Makineria.

– 214 Tresneria.

– 215 Beste instalazio batzuk.

– 216 Altzariak.

– 217 Informazio-prozesuetarako ekipoak.

– 218 Garraiatzeko elementuak.

– 219 Bestelako ibilgetu materiala.

Aktiboen preziotzat haien balio «garbia» hartuko da, hots, fakturatutako zenbatekoari Balio Erantsiaren gaineko Zerga kenduta ateratzen den balioa.

218 epigrafeari dagokionez, diru-laguntzak emango dira baldin eta horrelako aktiboak behar-beharrezkoak badira proiektua burutu ahal izateko.

Landetxeak sortzeko proiektuetan, ez dira diruz lagunduko titularrak bakarrik erabiliko dituen etxebizitzako aldeetan egiten diren inbertsioak.

co para el desarrollo turístico, quedando redactado en los siguientes términos:

«2.– Igualmente, se excluyen los proyectos de inversión en hoteles y apartamentos turísticos ubicados en alguna de las 3 capitales, excepto para las inversiones contempladas en el apartado 5.1.f)»

***Artículo cuarto.***– Se modifica el punto 1 y el punto 1.a) del artículo 7 de la Orden de 11 de junio de 2003, del Consejero de Industria, Comercio y Turismo, por la que se regula el programa Gauzatu-Turismo de ayudas a la inversión y a la creación de empresas de especial interés estratégico para el desarrollo turístico, quedando redactado en los siguientes términos:

«1.– Se considera inversión susceptible de apoyo a efectos de cálculo de las ayudas, las realizadas en activos fijos que se incorporen al activo de la empresa, como mínimo por importe de 50.000 euros, que tengan un período máximo de ejecución de 24 meses y que cumplan, además de los que fueran de aplicación en virtud de lo dispuesto en la presente Orden y sus disposiciones de desarrollo, los requisitos que, a continuación, se indican:

a) Que se trate de alguna de las siguientes categorías, según la definición que, al efecto, establece el Plan General de Contabilidad, recogido en el Real Decreto 1514/2007, de 16 de noviembre, en los epígrafes siguientes:

– 206 Aplicaciones informáticas.

– 211 Construcciones (incluidos urbanización y movimientos de tierras.

– 212 Instalaciones técnicas.

– 213 Maquinaria.

– 214 Utillaje.

– 215 Otras instalaciones.

– 216 Mobiliario.

– 217 Equipos para procesos de información.

– 218 Elementos de transporte.

– 219 Otro inmovilizado material.

Se considerará como precio de los activos su valor «neto», entendiéndose como tal el importe facturado una vez deducido el Impuesto sobre el Valor Añadido.

Respecto al epígrafe 218 sólo serán susceptibles de apoyo cuando su inclusión sea esencial para la integridad del proyecto.

En los proyectos de creación de casas rurales, no serán objeto de subvención las inversiones realizadas en las zonas de la vivienda destinadas al uso exclusivo de la persona titular.

Aipatutako 211 epigrafea konputatzeko, balio hauek hartuko dira oinarritzat:

– Etxe osoa edo zati batzuk eraiki berriak direnean, eraikitze-lanen balioa hartuko da oinarritzat, lurren balioa kenduta.

– Eraiki berria den eraikin bat, osoa edo zati bat, erosten denean, bere salerosketaren balioa baino ez da kontuan izango, lurraren balioa, zergak eta komisioak kenduta.

– Establezimendua bestelako erabilerak izan dituen eraikin batean jartzen bada, eraikina turismoko establezimendu gisa atontzeko egin beharreko berrikuntza obren balioa hartuko da aintzat.

Edonola ere, aktiboek zuzeneko lotura izan behar dute enpresaren helburu soziala den jarduerarekin.»

***Bosgarren artikulua.***– Industria Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2003ko ekainaren 11ko Aginduko 9. artikulua ezabatu egiten da. Turismoa garatzeko interes estrategiko berezia duten enpresak sortzen eta bertan inbertitzen laguntzeko Gauzatu-Turismo programa arautu zen agindu horretan.

***Seigarren artikulua.***– Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2003ko ekainaren 11ko Aginduaren 10. artikuluari idazkera berria ematen zaio. Agindu horren bidez, Gauzatu- Turismo programa arautu zen, turismoa garatzeko interes estrategiko berezia duten enpresak sortzen eta bertan inbertitzen laguntzeko programa, hain zuzen ere. Honela geratuko da artikulu hori:

«10. artikulua.– Laguntzen zenbatekoak.

Entitate edo/eta pertsona onuradunek honako laguntza hauek eskuratu ahal izango dituzte:

a) Laguntza jaso dezakeen inbertsioaren % 30 arteko aurrerakin itzulgarriak.

b) Bideragarritasun- edo/eta finantza-planaren % 100eko aurrerakin itzulgarriak (gehienez ere, 6.000 euro).

Aurrerakin itzulgarriak ez dira inoiz izango 900.000 eurotik gorakoak.»

***Zazpigarren artikulua.***– Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2003ko ekainaren 11ko Aginduaren 11. artikuluari idazkera berria ematen zaio. Agindu horren bidez, Gauzatu- Turismo programa arautu zen, turismoa garatzeko interes estrategiko berezia duten enpresak sortzen eta bertan inbertitzen laguntzeko programa, hain zuzen ere. Honela geratuko da artikulu hori:

«11. artikulua.– Laguntzak metatzea eta mugak.

Para computar el epígrafe 211, citado, se tomarán los siguientes valores:

– En el caso de edificios, o partes del mismo de nueva construcción, el importe del valor de la construcción, excluido el valor del terreno.

– En el caso de adquisición de un edificio o parte del mismo, de nueva construcción, exclusivamente su valor de compraventa, descontando el valor del suelo y excluidos impuestos y comisiones.

– En el caso de establecimientos que vayan a ubicarse en edificios que hayan tenido usos anteriores, el importe de las obras de reforma que se realicen para su habilitación como establecimientos turísticos.

En todo caso, los activos deberán estar directamente relacionados con la actividad que constituye el objeto social de la empresa.»

***Artículo quinto.***– Se elimina el artículo 9 de la Orden de 11 de junio de 2003, del Consejero de Industria, Comercio y Turismo, por la que se regula el programa Gauzatu-Turismo de ayudas a la inversión y a la creación de empresas de especial interés estratégico para el desarrollo turístico.

***Artículo sexto.***– Se da nueva redacción al artículo 10 de la Orden de 11 de junio de 2003, del Consejero de Industria, Comercio y Turismo, por la que se regula el programa Gauzatu-Turismo de ayudas a la inversión y a la creación de empresas de especial interés estratégico para el desarrollo turístico, quedando redactado en los siguientes términos:

«Artículo 10.– Cuantías de las ayudas.

Las entidades y/o personas beneficiarias podrán optar a las siguientes ayudas:

a) Anticipos reintegrables por importe de hasta el 30% de la inversión susceptible de apoyo.

b) Anticipos reintegrables del 100% del plan de viabilidad y/o financiero hasta 6.000 euros.

En ningún caso los anticipos reintegrables podrán superar 900.000 euros.»

***Artículo séptimo.***– Se da nueva redacción al artículo 11 de la Orden de 11 de junio de 2003, del Consejero de Industria, Comercio y Turismo, por la que se regula el programa Gauzatu-Turismo de ayudas a la inversión y a la creación de empresas de especial interés estratégico para el desarrollo turístico, quedando redactado en los siguientes términos:

«Artículo 11.– Acumulación y límites de las ayudas.

Agindu honetan arautuko laguntzak, batetik, eta, bestetik, xede berarekin beste herri-administrazio batzuek edo erakunde pribatuek emandako laguntzak bateragarriak izango dira, baldin eta laguntza guztien baturak eskualdeko helburua duten Estatuaren laguntzei buruzko Jarraibideen 4.4 idatz-zatian (2006ko martxoaren 4ko EBAO, C54) zehaztutako muga gainditzen ez badu. Halako laguntzarik jasoz gero, horren berri eman behar zaio Turismo Administrazioko eta Lehiakortasuneko Zuzendaritzari.

Adierazitako muga gaindituz gero, soberakinari dagokion kopurua kenduko zaio agindu honen babespean jasotako laguntzari.»

***Zortzigarren artikulua.***– Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2003ko ekainaren 11ko Aginduaren 13. artikuluaren 3. puntua aldatzen da. Agindu horren bidez, Gauzatu-Turismo programa arautu zen, turismoa garatzeko interes estrategiko berezia duten enpresak sortzen eta bertan inbertitzen laguntzeko programa, hain zuzen ere. Honela geratuko da artikulu hori:

> «3.– Eskabideak proiektua hasten den ekonomia-ekitaldian aurkeztu beharko dira eta eskabidean adierazi beharko da proiektua urtebetean ala hainbat urtetan gauzatuko den; hainbat urtetan gauzatzekoa bada, ekitaldi bakoitzeko zenbatekoak zehaztu beharko dira. Ez dira onartuko aurreko ekitaldietan egindako inbertsioak, agindu honen 2. artikuluan jasotako kasuan kenduta.»

***Bederatzigarren artikulua.***– Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2003ko ekainaren 11ko Aginduaren 14. artikuluaren 1. puntuaren a) eta b) idatz-zatiak aldatzen dira. Agindu horren bidez, Gauzatu-Turismo programa arautu zen, turismoa garatzeko interes estrategiko berezia duten enpresak sortzen eta bertan inbertitzen laguntzeko programa, hain zuzen ere. Honela geratuko da artikulu hori:

> «a.1) Inbertsio-proiektuaren txosten zehatza, bideragarritasun plan ekonomiko-finantzario eta laborala eta hori gauzatzeko epeak bilduko dituena.
>
> a.2) Hala behar denean, establezimenduaren proiektu arkitektonikoa, txostena eta planoak bilduko dituena.
>
> b) Eratze-eskritura eta Identifikazio Fiskaleko Txartelaren fotokopia, eskatzailearen ahalordearen fotokopia; agiri horiek Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak lehendik baldin badauzka ez dira berriz aurkeztu behar.»

***Hamargarren artikulua.***– Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2003ko ekainaren 11ko Aginduaren 18. artikuluaren 2., 3. eta 4. puntuen zenbakiak aldatzen dira: aurrerantzean, 3., 4. eta 5.a izango dira, hurrenez hurren. Aipatutako agindu horren bidez,

Las ayudas otorgadas por otras Administraciones Públicas, o por entidades privadas, que tengan el mismo objeto que las recogidas en la presente Orden, serán compatibles en cuanto no superen en su conjunto el límite establecido en el apartado 4.4 de las Directrices sobre ayudas de Estado de finalidad regional para el periodo 2007-2013 (DOUE, C54, de 4 de marzo de 2006), debiéndose notificar dichas ayudas a la Dirección de Administración Turística y Competitividad.

En caso de superarse dicho límite, la ayuda concedida en virtud de esta Orden se minorará en la cantidad correspondiente al exceso.»

***Artículo octavo.***– Se modifica el punto 3 del artículo 13 de la Orden de 11 de junio de 2003, del Consejero de Industria, Comercio y Turismo, por la que se regula el programa Gauzatu-Turismo de ayudas a la inversión y a la creación de empresas de especial interés estratégico para el desarrollo turístico, quedando redactado en los siguientes términos:

> «3.– Las solicitudes deberán presentarse en el ejercicio económico en el que se inicie el proyecto de inversión, debiendo indicarse en la solicitud si la ejecución es anual o plurianual, desglosándose, en este último caso, los importes previstos para cada ejercicio. No se aceptarán inversiones realizadas en ejercicios anteriores, con excepción del supuesto contemplado en el artículo 2 de la presente Orden.»

***Artículo noveno.***– Se modifica los apartados a) y b) del párrafo 1 del artículo 14 de la Orden de 11 de junio de 2003, del Consejero de Industria, Comercio y Turismo, por la que se regula el programa Gauzatu-Turismo de ayudas a la inversión y a la creación de empresas de especial interés estratégico para el desarrollo turístico, quedando redactado en los siguientes términos:

> «a.1) Memoria detallada del proyecto de inversión en la que se incluirá el plan de viabilidad económico-financiero y laboral y los plazos para su realización.
>
> a.2) En su caso, proyecto arquitectónico del establecimiento con memoria y planos.
>
> b) En su caso escritura de constitución, fotocopia de la Tarjeta de Identificación Fiscal, y fotocopia del poder de representación de la persona solicitante, excepto si los mismos obran en poder del Departamento de Industria, Comercio y Turismo.»

***Artículo décimo.***– Se modifica la numeración de los apartados 2, 3 y 4 del artículo 18 de la Orden de 11 de junio de 2003, del Consejero de Industria, Comercio y Turismo, por la que se regula el programa Gauzatu-Turismo de ayudas a la inversión y a la creación de em-

Gauzatu-Turismo programa arautu zen, turismoa garatzeko interes estrategiko berezia duten enpresak sortzen eta bertan inbertitzen laguntzeko programa, hain zuzen ere. Halaber, 18. artikulu horretan 2. atal berria sartzen da eta honela geratzen da idatzita:

«2.– Hala ere, aurreko atalean esandakoa gorabehera, Turismo sailburuordeak luzatu egin dezake laguntzak emateko ebazpenean ezarritako itzulketa-egutegia, enpresa onuradunak hala eskatzen badu eta, betiere, enpresaren egoera finantzarioaren azterketa egin ondoren. Luzapen hori hasierako egutegian ezarritako itzulketa guztiei, bakar bati edo batzuei aplikatu ahal izango zaio; hala ere, laguntzak emateko ebazpenean finkatutako egutegia ezin izango da urtebetetik gora luzatu. Luzapena onartzen bada, onuradunak dagozkion legezko interesak ordaindu beharko ditu.»

***Hamaikagarren artikulua.***– Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2003ko ekainaren 11ko Aginduaren 20. artikuluaren 1. eta 2. puntuei idazkera berria ematen zaie. Agindu horren bidez, Gauzatu-Turismo programa arautu zen, turismoa garatzeko interes estrategiko berezia duten enpresak sortzen eta bertan inbertitzen laguntzeko programa, hain zuzen ere. Honela geratuko dira bi puntu horiek:

«1.– Enpresa onuradunak betetzen ez badu agindu honetan, aplikatu behar diren gainerako arauetan eta ebazpenean ezarritako baldintza eta beharkizunetako baten bat, organo eskudunak, ez-betetzeari buruzko espedientea egin eta interesatuari entzun ondoren, interesatuak laguntza jasotzeko eskubidea galdu duela adieraziko du ebazpen bidez eta, hala badagokio, jasotako laguntzen printzipala itzuli behar diola Garapenerako Euskadiko Kapital-Sozietateari (SOCADE, S.A.) eta dagozkion interesak, berriz, Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari.

Itzulitako kopuruak zuzenbide publikoko sarreratzat joko dira legezko ondorio guztietarako.

2.– Ez-betetzeen artean honako hauek daude:

2.1.– Inbertsioari buruzkoak:

a) Agindu honen 9. eta 10. artikuluetan inbertsioari buruz ezarritako gutxienekoak ez gauzatzea.

b) Inbertsioa egiteko ezarrita dauden epeak gainditzea, betiere Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko Turismo sailburuordeak emandako aldaketarako edo luzapenerako baimenik ez badago.

presas de especial interés estratégico para el desarrollo turístico, que pasan a ser los apartados 3, 4 y 5 respectivamente del mismo artículo. Asimismo se añade un nuevo apartado 2 en el citado artículo 18, quedando redactado en los siguientes términos:

«2.– No obstante lo anterior, la Viceconsejera de Turismo podrá conceder una prórroga en el calendario de reintegros fijado en la resolución de concesión de las ayudas, previa solicitud de la empresa beneficiaria y consecuente evaluación de la situación financiera de la misma. La referida prórroga podrá alcanzar a todos o a alguno o algunos de los reintegros establecidos en el calendario inicial y no podrá exceder de un año respecto del fijado en la resolución de concesión de las ayudas. La concesión de la prórroga conllevará la obligación del beneficiario de abonar los intereses legales que correspondan.»

***Artículo undécimo***.– Se da nueva redacción a los puntos 1 y 2 del artículo 20 de la Orden de 11 de junio de 2003, del Consejero de Industria, Comercio y Turismo, por la que se regula el programa Gauzatu- Turismo de ayudas a la inversión y a la creación de empresas de especial interés estratégico para el desarrollo turístico, quedando redactados en los siguientes términos:

«1.– En los supuestos en que la empresa beneficiaria incumpliera cualesquiera de los requisitos establecidos en la presente Orden y demás normas aplicables, así como las condiciones que, en su caso, se establezcan en la Resolución de concesión, el órgano competente, previo expediente de incumplimiento en el que se dará audiencia a la interesada, declarará, mediante Resolución, la pérdida del derecho a la subvención y, en su caso, la obligación de reintegrar a la Sociedad Capital Desarrollo de Euskadi SOCADE, S.A. el principal de las ayudas percibidas y a la Tesorería General del País Vasco los intereses correspondientes.

Las citadas cantidades tendrán la consideración de ingresos de derecho público a todos los efectos legales.

2.– Entre las causas de incumplimiento estarán las siguientes:

2.1.– Relativas a la inversión:

a) La no materialización de los mínimos establecidos en los artículos 9 y 10 de esta Orden, relativos a la inversión.

b) Sobrepasar los plazos establecidos para la realización de la inversión siempre que no medie autorización de modificación o de prórroga otorgada por la Viceconsejera de Turismo del Departamento de Industria, Comercio y Turismo.

c) Agindu honen 22. artikuluko 2. eta 5. puntuetan ezarritako betebeharrak ez betetzea eta, oro har, aurkeztutako proiektuan onartu diren turismo-araudiko zehaztapenak konplitzea eragozten duen edozein aldaketa egitea, salbu eta aldaketa aurrez jakinarazi bada eta Turismo sailburuordeak berariaz onartu badu.

2.2.– Itzulketei buruzkoak:

a) Autolikidazioak eta itzulketak agindu honetako 18. artikuluan ematen diren epeen barruan ez egitea.»

***Hamabigarren artikulua.***– Industria Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2003ko ekainaren 11ko Aginduko 22. artikuluan beste puntu bat gehitzen da. Turismoa garatzeko interes estrategiko berezia duten enpresak sortzen eta bertan inbertitzen laguntzeko Gauzatu-Turismo programa arautu zen agindu horretan:

«5.– Enpresa onuradun guztiek diruz lagundu den proiektua martxan izan beharko dute aurrerakin itzulgarriaren lehenengo itzulketa egin behar duten eguna baino lehen, salbu eta aurretik salbuetsita egoteko baimena eskatu badute eta Turismo sailburuordeak hori berariaz onartu badu.

Zenbait enpresak Turismo Enpresa eta Establezimenduen Erregistroan inskribatuta egon beharko dute, baldin eta euren ezaugarriak direla-eta hartara behartuta badaude.»

AZKEN XEDAPENAK

***Lehenengoa***.– Ahalmena ematen zaio Turismo sailburuordeari agindu hau aplikatzeko beharrezko diren ebazpenak eman ditzan eta aginduaren inguruan sortzen diren zalantza zehatzak —sortuz gero— ebatz ditzan.

***Bigarrena***.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean agindu hau.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko otsailaren 23a.

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburua,
ANA AGUIRRE ZURUTUZA.

c) No cumplir con las obligaciones establecidas en los puntos 2 y 5 del artículo 22 de la presente Orden, y en general, cualquier desviación del proyecto original que impida cumplir las especificaciones de normativa turística aceptadas en el proyecto presentado, salvo notificación previa y aprobación o dispensa expresa de la Viceconsejera de Turismo.

2.2.– Relativas a los reintegros:

a) La no realización de las autoliquidaciones y los reintegros en los periodos que se indica en el artículo 18 de esta Orden.»

***Artículo duodécimo.***– Se introduce un nuevo punto en el artículo 22 de la Orden de 11 de junio de 2003, del Consejero de Industria, Comercio y Turismo, por la que se regula el programa Gauzatu-Turismo de ayudas a la inversión y a la creación de empresas de especial interés estratégico para el desarrollo turístico:

«5.– Todas las empresas beneficiarias deberán tener en funcionamiento el proyecto objeto de subvención con anterioridad a la fecha en que debieran realizar la primera devolución del anticipo reintegrable, salvo notificación previa y aprobación o dispensa expresa de la Viceconsejera de Turismo.

Aquellas empresas que por sus carácterísticas estuvieran obligadas a ello, deberán estar dadas de alta en el Registro de Empresas y Establecimientos Turísticos con anterioridad a la mencionada fecha.»

DISPOSICIONES FINALES

***Primera***.– Se faculta a la Viceconsejera de Turismo para dictar las resoluciones necesarias para la aplicación de esta Orden, así como para resolver las dudas concretas que con relación a la misma se susciten.

***Segunda***.– La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 23 de febrero 2009.

La Consejera de Industria, Comercio y Turismo,
ANA AGUIRRE ZURUTUZA.